



Bertso Udalekuetarako aurrelanetan

Oraindik ez dakigu udalekuak egin ahal izango ditugun, baina lanak aurreratzen hasiak gara. Martxoaren 1ean hasiko da hezitzaileen izen-ematea; aldiz, haurrena ez dugu oraindik abiatuko.

Egoeraren bilakaerak erakutsiko digu aurten Bertso Udalekuak egingo ditugun ala ez. Maiatzean hartuko dugu erabakia, une horretan indarrean egongo diren neurri eta legeak aintzat hartuta. Edonola ere, udalekuek aurrelan handia eskatzen dute, eta, ondorioz, prestaketa lanetan hasiak gara.

Haurren izen-ematea ez dugu oraindik abiatuko, udalekuak egingo direla ziur jakin arte: maiatzean izango da hori, eta orduan abiatuko genuke haurren izen-ematea. Hezitzaileekin, ordea, lanean hasi nahi dugu. Udalekuen aurretik prestatu egiten ditugu, eta aintzat hartu beharreko ezohiko neurriak ere gehituko zaizkigu aurten.

Martxoaren 1ean hasiko dugu hezitzaileen izen-ematea, 10:00etan; www.bertsozale.eus atarian izango den izen-emate orria bete beharko da horretarako. Hezitzaileek begirale, zuzendari, sukaldari ala praktiketako begirale gisa eman ahal izango dute izena, ondoen egokitzen zaien udalekuetako txanda ere aukeratuta. Martxoaren 14an amaituko da epea, eta apirilaren hasieran emango zaie beren izen-ematearen egoeraren berri.

Prestaketa saioetan hasiko dira hautatuak, eta, esan bezala, maiatzean jakinaraziko zaie udalekuak egingo ote ditugun ala ez.

Zortzi txandako udalekuak

Bost txanda egin ohi ditugu, baina aurtengoan lagun eta egun kopuru gutxiagoko egonaldiak antolatu ditugu; horregatik, zortzi txanda izango dira. Sopelan eta Zuhatzan txanda bana egingo genuke, eta Orion, Uitzin eta Amaiurren, bina. Guztiak bost egunekoak dira eta uztailen izango lirarteke.

Txanden inguruko zehaztasun eta informazio gehiago, www.bertsozale.eus atarian.



ANE LABAKA MAYOZ

Tolosa, 2021-01-16

Doinua: Nemo ez da senditzen

Irrira, negarrera edo oilo larrura iristeko nork dauka beharra? nork, ardura? Ongi etorri hitzen ta doinuen amarrura arrisku eremu baino gozamen esparru da. Ez itxoin atarian uxatu azkar duda atea zabalik dago sartu lasai barrura.



Aurtengoan, osasun neurriak kontuan hartuta egin beharko dugu prestaketa. / XDZ

Bertsoa hezkuntza arautuan: etengabe egokitzen eta berritzen

53 irakasle eta 29.500 ikasle ari dira egunero hezkuntza arautuan bertsolaritza lantzen; beste zenbait eremutan bezala, hemen ere bertsoa egokitzen ari da egunerokora eta honek aldaketak ekarri ditu.

Bertsozale Elkartean sekulako indarra hartu du azken urteetan hezkuntza arautuan dugun proiektuak. Une honetan, 229 herritan eskaintzen da bertsolaritza, 511 ikastetxetan, eta 29.500 ikaslerengana iristen gara, 53 irakasleri esker. Zenbaki horien atzean, baina, pertsona ugari dago egunerokoa bertsoa irakasteko prozesuan hobekuntzak egin eta gauza berriak probatzen.

Haurrei bertsolaritza nola irakasten zaien aztertzen ari da Bertsozale Elkarteko Mikel Artola azken urteetan eta, egindakotik abiatuta, metodologia berria probatu eta proposatu du. Oinarrian, haurrei bertsotan bat-batean irakastea datza: plazakotik gertuago dago eta jolasetik ere asko du. "Eskatzen diegun horretan dago koska", dio Mikel Artolak. "Bertsoa osorik egiteko eskatzen badiegu, zaila izango da bat-batean egitea. Baina puntu bat beste puntu batekin erantzuteko gai izaten dira ia denak; baita kopla bat egiteko ere, biren artean", azaldu du. Horrela, bertsolariek egiten duten bezala egiten dute: belarriz, eta ez silabak kontatuta", dio.

Gure irakasleen artean "aldaketa handia" izaten ari da batzuentzat, eta "ez horrenbeste" beste batzuentzat. "Eginez ikastea da orain kontua, eta ez horrenbeste bertsoaren gramatika ikasi eta gero praktikan jartzea", esan du Artolak. Hori bai, gelako jarduna "dezente" aldatzen dela dio.

Aldaketa horretan bete-betean sartuta dago Nerea Urra irakaslea: "Gelako dinamika biziagoa eta parte hartzaileagoa

da", azaldu du. "Ikasle bakoitzari bere gaitasunak garatzeko aukera gehiago eskaintzen dizkio funtzionamendu honek", gaineratu du. Bat-baterako jautzia "naturalki" egiten dutela dio, saio eta dinamikei esker. Irakasleen motibazioaz galdetuta, hauek "motibazio handiagoz" sumatzen dituela dio, "jolasa bihurtzen baita bertsoarekin esperimentatzea".

Ikasgela barruan bakarrik ez, kantuan ere jarri ditu Urrak bere ikasleak topaketa batean. "Ikastetxeko aretoan egin dugu, eta ikasle gehienek hartu dute parte bat-bateko zatian", azaldu du. "Askok errepikatu nahi izan dute ariketa". Pertsonalki, aurreneko esperientzia izan du Urrak hau, eta "oso positiboa" izan dela dio. "Ikasleak eroso, motibatuta eta lasai ikusi ditut".

Asier Alcedo irakasleak dio "bitxia" dela umea kantuan ari denean ingurukoaren erreakzioa ikustea. "Lehenengo tokatzen zaionak ariketa ondo burutzen badu, gela osoan eragiten du; batzuetan, txalotu ere egiten dute ezinezko zerbait egin duelakoan", dio. "Gero haien txanda datorrela jakitun, urduri sumatzen ditut, baina behin abestuta, harrotasun puntu batekin ere egoten dira", gaineratu du.

Honek guztiak irakasleen formakuntza eskatzen du, jakina, eta horretan ere ari gara. "Lehendabizi gogoeta orokor eta sakona egin genuen bertsolaritzaren ikasketa prozesuaz, eta orain gelan grabatutako bideoak aztertzen ari gara; irakasle-ikertzaile figura da interesatzen zaiguna", azaldu du Mikel Artolak.



Bat-batean aritzeko metodologiak lantzen ari dira zenbait irakasle. / XDZ

Karta-jokoak eta gehiago

Etengabeko egokitze horretan, bertsozaritza lantzeko ikasmateriala sortzen ari gara etengabe. Horrela adierazi du Ixiar Eizagirrek, Bertsozale Elkarteko materialgintza arduradunak: "Irakasleak dira gelan erabiliko duten materiala sortzen dutenak", azaldu du. Azken urteotan haurrei zuzenduta sortu dugun material guztia www.bertsoikasgela.eus atarian dugu eskura. "Orain, haurrek bat-batean egiteko metodologia geletan gauzatu ahal izateko materiala sortzen ari gara irakasleekin, eta karta jolasak dira horren emaitzetako bat", dio Eizagirrek. "Ikasturte berriari begira, ikasliburua berritzeko prozesuan ari gara", gaineratu du.

Karta jolasak Bertsozale Elkarteak eta Lanku Kultur Zerbitzuek sortu dituzte, irakasle lantaldearen ekinez. Sei sortaz osatutako bilduma da, eta zailtasun mailaren arabera antolatuta datoz. Bakoitza ariketa jakin bati dago zuzenduta: lehen puntua eta oinak emanda, azken puntua eta oinak emanda, lau edo zortzi oinak emanda, gaiak sortzeko kartak, errima kartak eta pasa hitza asmakizun jolasa. Karta jolasen bilduma bana bertso-eskola guztiei oparitu zaie eta, horrez gain, bertsozaritza irakasleen bidez eskoletan ere erabiliko dira.

Karta jolas horien sorkuntza prozesuan aritu da Asier Alcedo irakaslea. Oraindik ez ditu berriak probatu, baina sortze lanetan ibili zirenean eraman zituen gelara zenbait lagin. "Gustura ibiltzen dira, karta errazenetan, bereziki ondo ateratzen denean. haiengandik ateratzen zaie beste bat eskatzea: hori seinale ona dela esango nuke", dio.

Karta jolasak ikusteko eta probatzeko aukera dago www.bertsoeskola.eus atarian, *Hasiberriak* atalean, PDF bertsoan deskargatuta.

Ikasturte berezia

Pandemiaren eraginez ikastetxe guztietan hartu dira neurriak eta, hori dela eta, egokitu egin behar izan gara ikasgeletan: ariketak, dinamikak eta jarduerak osasun neurrien arabera moldatu behar izan dira. "Distantziak eta eskutik eskura ezer erabili ezinak zaildu egin du zenbaitetan hainbat jarduera garatzea", azaldu du Nerea Urrak. Dena dela, ikasturteak aurrera egin ahala, bai irakasle eta bai ikasleak egoera berrira moldatu direla esan du, eta normaltasunez funtzionatzen ari direla.

Antzekoa dio Asier Alcedok ere: "Lantaldeetan ezin batzeak, gelak ezin nahasteak, kantaldiak, topaketak eta eskolako jaialdiak kolokan izateak... esango nuke zail samar egiten ari zaigula helburu zehatzak markatzea", dio. "Irudipena dut musukoaren erabilerak eragin zuzena duela haurren euskararen ulerkeran eta gure ahozko jardun eta transmisioan traba dela", gaineratu du, maskararen erabileraren beharrezkotasuna zalantzan jarri gabe.

Argi dago, ikasturtea berezia izanagatik, bertsoak moldatzen jakin duela lekuz leku eta momentuz momentu. Horrela jarraituko dugu aurrerantzean ere, daukagunari eta datorkigunari ahalik eta erantzunik onenak ematen.

Karta jolasen bidez, haurrek ariketa desberdinak egin ahal izango dituzte, bat-batean

Hezkuntza, zenbakitan:
229 herri
511 ikastetxe
29.500 ikasle
53 irakasle



Sei karta sorta argitaratu dira bat-bateko ariketak lantzeko. / XDZ



Puntu jarrita

MAINDI MURUA BERRA

Pettan,

Gogoetan ari zira bertsolariak ez ote dion publikoari gehiegi egokitzen bere hitza. Gai jarriekilako saioen formatu aratuak enoatzen zaituela diozu, bertso egiteko manierak berdintzen baititu. Ostatuko edo libreko saio gehiago antolatzeke gogoia duzula, beraz.

Funtsezko gaia iruditzen zait niri ere bertsolariak berak nahi duena kantatzea. Gugandik itxoiten dena erraten, ematen, ikasi dugun gizarte huntan, bertsolariari anitz eskertzen diot busti dadin, espero ez nuena kanta dezan, bere ikuspuntu pertsonala kantatzen ausartu dadin.

Nortasun handikoak dira bertsoan hasiberri diren gaztetxoak, agian gizartearen eta bertsozalearen kodeetan guti bustiak direlako oraindik. Esperientzia handiagoko bertsolariengan ere ikusten ditut berezitasunak, alta. Horren adibide da saio bat antolatzean bertsolariak hautatzen hartzen dugun plazerra. Baitakigu kontestu berean, edo gai berari, ez diola bertso bere kantatuko Igor Elortzak edo Unai Iturriagak; Maddi Sarasuak edo Elixabet Etxandik.

Maila handikoa izateak laguntzen du segur beretik kantatzen. Teknikak gutiago mugatzen duen bertsolariak askatasun handiagoa ukanean du bere ideia zuzenki formulatzeko. Baina une konkretu batean norbere ideia kantatzen ausartzeko, nortasuna ere beharrezkoa da; gogoeta, eztabaida eta lanketa pertsonalez jantzia izatea.

Ez zait niri iduritzen gai libreko saio batek aukera gehiago ematen dionik bertsolariari beretik aritzeko. Ez ote du bertsolariak berak gehiago eragiten saio motak baino?

Izan ere, librean aritzeak ere baditu bere herstura eta kodeak. Usu bat tiraka ariko da kantuan, bertzea segika. Gaia gehienetan saioaren tokiari, aktualitateari, entzuleari edo bertsolariari berari lotua izanen zaio.

Ez zait, beraz, iruditzen "libreko" saioak askoz aukera gehiago ematen dionik bertsolariari ideia propioak partekatzeko. Adibidez, ezohikoa da "libreko" saio batean bertsolari bat bakarka entzutea. Alta, ez ote da bakarkako ariketa bertsozale berri bat edo entzulearengan adostasuna berezkoa ez duen ideia delikatu bat lantzeko aukerarik egokiena?

Pettanek saio libreagoak antolatzeko gogoia adieraztean, antolatu gabeko saioak heldu zaizkit gogorat, bat-batean sortzen diren saio horiek. Lur, espresuki zuri galdegin nahi nizuke; zer askatasun eskaintzen du aurreikusia ez den saio batek?

Koplak

Gai-jartzaileen eta bertsolariaren mintegia, datorren astean

Martxoaren 3an egingo dugu aurten Gai-jartzaileen eta Bertsolariaren V. Mintegia Lankuk sortzaileei eskaintzen dizkien zerbitzuen hausnarketa, haien hobekuntza eta bi kolektiboen lan arloari dagozkien gaien erabakimena du helburu mintegiak. Parte hartzeko aukerak erraztuko dira: nahi duenak Amasa-Villabonako Subijana etxetik presentzialki jarraitu ahal izango du, eta nahi duenak, norberaren etxetik, online.

Poto-Finixa



Puntuak, saretzen!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Eskolatik Plazara, Hitzetik Hortzeran

Urtarrilaren hondarrean hasita, hiru ostiral jarraietan egin dira Eskolatik Plazara egitasmoko bertso saioak. Iaz Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan parte hartzeokoak ziren bertsolari gazteak eta plazan ohikoak direnak elkartu ditu Ikastolen Elkarteak eta Bertsozale Elkarteak antolatutako proposamenak. Hiru saioetako bertsoaldiak eta protagonista gazteen hitzak jasoko ditu, besteak beste, datorren Hitzetik Hortzerak.



Eskuragarri www.lanku.eus atarian